

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA
MANTENTZE LANAK

INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

5. modulua: Energia Berriztagarriak eta Eraginkortasun Energetikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA
PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTALATZE ETA
MANTENTZE LANAK

INSTALAZIO TERMIKO ETA FLUIDODUNAK MANTENTZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

5. modulua: Energia Berriztagarriak eta Eraginkortasun Energetikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Saillburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitalpena: 1., 2010eko urtarrila.

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Egileak: Josune Escudero Lasarte
Aitor Otaño Jauregui

Koordinazioa: Victor Marijuán Marijuán
KUALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-3335-09

AURKIBIDEA

Orduak: 99
Unitateen kop.: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04 or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05 or.
1	1. unitate didaktikoa: Energia berriztagarrien iturriak aztertzea	08 or.
2	2. unitate didaktikoa: Energia berriztagarriekin lotzen den arauzko esparrua aztertzea	12 or.
3	3. unitate didaktikoa: Energia sortzeko sistemak aztertzea	17 or.
4	4. unitate didaktikoa: Energia sortzeko sistemen arteko eraginkortasun energetikoaren kalkulu konparatzaileak egitea	22 or.
5	5. unitate didaktikoa: Eguzki-erradiozioaren kalkuluak egitea	28 or.
6	6. unitate didaktikoa: Eguzki-atzitzaille termikoen motak eta horien funtsezko ezaugarriak aztertzea	32 or.
7	7. unitate didaktikoa: Eguzki-instalazio termikoen zatiak eta elementuak aztertzea	37 or.
8	8. unitate didaktikoa: Eguzki-instalazio termikoen diseinua.	41 or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK				UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4		
X				UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X				UD1: Energia berriztagarren iturriak aztertzea	9 h
X				UD2: Eraginkortasun energetikoarekin eta energia berriztagarriekin lotzen den arazko esparrua aztertzea	6 h
X				UD3: Energia sortzeko sistemak aztertzea	15 h
X				UD4: Energia sortzeko sistemen arteko eraginkortasun energetikoaren kalkulu konparatzaileak egitea	15 h
	X			UD5: Eguzki-erradiazioaren kalkuluak egitea	14 h
	X	X		UD6: Eguzki-atzitzaille termikoen motak eta horien funtsezko ezaugarriak aztertzea	12 h
			X	UD7: Eguzki-instalazio termikoen zatiak eta elementuak aztertzea	12 h
			X	UD8: Eguzki-instalazio termikoen diseinua	15 h
GUZTIRA					99 h

1. multzoa: Energia berriztagarriko instalazioetako aurrezpen energetikoa eta gasen emisioa kalkulatzeko
2. multzoa: Eguzki-instalazio termikoetarako eguzki-erradiazioko galerak kalkulatzeko
3. multzoa: Eguzki-instalazio termikoetan erradiazio xurgatua kalkulatzeko
4. multzoa: Eguzki-instalazioak dimentsionatzea, eraginkortasun energetikoko irizpideak aplikatuz



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA.		Iraupena: Ordu 1			
Ikaskuntzaren helburuak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 					
EDUKIAK		Multzok			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak, eta moduluarekiko lotura. • Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluaren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 				



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.
J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	x	x	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntu jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi (E) eta ikastekoak ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ITURRIAK AZTERTZEA						Iraupena: 9 ordu			
<p><i>IE1: Energia berriztagarriko instalazioetako aurrezpen energetikoa eta gasen emisioa kalkulatu du, eta instalazio konbentzionalenekin alderatzen ditu.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <p>1. Energia konbentzionalen instalazioen eta energia berriztagarriko instalazioen errendimendu energetikoak alderatzea.</p>									
EDUKIAK						Multzoak			
						1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia-iturriak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> Eguzki-energia termikoaren ahalmena ebaluatzea. Energia geotermikoaren ahalmena ebaluatzea. Biomasatik eratorritako energiaren ahalmena ebaluatzea. 					X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia konbentzionalen ingurumen-inpaktua. 					X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa bilatzean, jarrera ordenatua, metodikoa eta parte-hartzailea izatea. Lan-taldean elkarlanean eta integratuta jardutea. Txukuntasuna eta garbitasuna zaintzea egindako lanetan eta jardueretan. 					X			
JARDUERA			METODOLOGIA			BALIABIDEAK			
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den		
			Ir.	Ik.					
J1 UDaren eta terminoen glosarioaren aurkezpena	1	1 h	X		Unitate Didaktikorako sarrera laburra egingo da, eta ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren	Ikasleen alde aurreko jakintzak azalertzeko, eta horien eta garatu beharreko edukiaren arteko loturak	Moduluaren programazioa. Ordenagailua eta proiektorea. Terminoen glosarioa.		



					<p>jarduerak aurkeztuko ditu. Unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du. Paper-formatuan dagoen terminoen glosarioa banatuko da, eta ikasleek osatu egin beharko dute (ikus oharrak).</p>	<p>ezartzeko, horiek ikasteko interesa sorraraztearren.</p>	
<p>J2 Ikasleen praktika autonomoan jarraitu beharreko gidoiaren azalpena.</p>	1	1 h	X	<p>Irakasleak jardueraren gidioa azalduko du. Gidoi horri jarraituta, honakoari buruzko informazioa bilatu beharko dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Energia berriztagarriak: zuzeneko eguzki-energia, energia termikoa (eguzki hotza) eta fotovoltaikoa, haize-energia, biomasaren energia, olatuen energia, energia hidraulikoa, energia geotermikoa eta mareen energia. <ul style="list-style-type: none"> -Baliabide energetiko gisa duten garrantzia. -Energia berriztagarri horietako bakoitza aprobetxatzeko modua. • Energia berriztaezinak: <ul style="list-style-type: none"> Jatorri fosila duen energiaren iturriak (petrolio, iktza, gas naturala) eta energia nuklearra. - Energia berriztaezinen ezaugarriak. - Energia berriztaezinen erabilerak ingurumenaren gainean duen inpaktua. • Energia berriztagarriek berriztaezinen aldean dituzten alde 	<p>Jarraitu beharreko jardueraren gidioa ezagutzeko eta ulertzeko.</p>	<p>Ordenagailua eta proiektorea. Praktikaren gidioa.</p>	



<p>J2.1 Aurreko J2 jardueran adierazitako prozeduraren araberako ikasleen praktika autonomia.</p>		4 h		X	<p>onak eta alde txarrak bilatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> Behe-entalpiako geotermia, biomasa, eguzki-energia termikoa eta eguzki-hotzekoa xehetasun handiagoz aztertzea, instalazio termikoetan erabiltzen diren energia berriztagarriak baitira. <p>Klasea binaka antolatuko da. Talde bakoitzak informazioa bilduko du eta egitura egokia emango dio. Une oro zehaztu beharko du erabilitako informazio-iturria. Garrantzitsutzat jotzen diren kontzeptuak terminoen glosarioan sartu beharko dira.</p> <p>Informazio-iturriaren garrantzia nabarmenduko da. Ikasleak erabilitako informazio-iturria jasoarazi beharko du beti.</p>	<p>Landutako energia berriztagarrien moten potentziala ezagutzeko, eta energia berriztagarriek berriztaezinen aldean berez dituzten alde onak ulertzeko.</p>	<p>Talde bakoitzerako Interneterako sarbidea duen ordenagailu bat. Praktikaren gidoia. Testu-dokumentuak garatu ahal izateko programa informatikoa. Ordenagailua eta proiektorea, bildutako informazioaren edukiak azaltzeko.</p>
<p>J3-E1 J2-1 jardueraren emaitzak aurkeztea, taldeka eta banaka.</p>	1	2 h	X	X	<p>Talde bakoitza J2-1 jarduerako praktikaren gidoiari jarraituz:</p> <ul style="list-style-type: none"> Bildutako informazioaren edukiak azalduko ditu eta eduki horiek denen artean aztertuko dituzte. Informazio-iturriak identifikatzen eta aztertzen ditu. <p>Irakasleak, beharrezkoa bada, azalduko edukiak osatu egingo ditu.</p>	<p>Bidezkoa bada, J2-1 jarduera egitean bildutako informazioa aztertzeke eta osatzeko.</p>	<p>Praktikaren gidoia. Testu-dokumentuak garatu ahal izateko programa informatikoa. Ordenagailua eta proiektorea, bildutako informazioaren edukiak azaltzeko.</p>



J4 Energia berriztagarriei buruzko bideoaren proiektzioa.	1	1 h	X	X	Irakasleak labur-labur azalduko du bideoaren edukia: elektrizitatea energia berriztagarriekin sortzea (geotermia, tenperatura handiko eguzki-energia, fotovoltaikoa, haize-energia eta biomasa).	Unitate honetan eskuratutako ezagutzak bideoan aurkezten den informazioarekin osatzeko: elektrizitatea energia berriztagarriekin sortzea.	Energia berriztagarriei buruzko bideoa: RENEWABLES ENERGIES (ENERGIA BERRIZTAGARRIAK) THE OPEN UNIVERSITYren produkzioa (50 min.). Ikus-entzunezko sistema duen ordenagailua.
---	---	-----	---	---	--	---	---

OHARRAK

- Ikasleek kursoan zehar bete beharko duten terminoen glosarioa egitea planteatu da. Glosario horretan jada definituta agertuko diren kontzeptuak daude, baina ikasleek beharren arabera osatu beharko dute glosarioa. Glosarioaren jarraipena egingo da eta ebaluaziorako hartuko da kontuan.



2. unitate didaktikoa: ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREKIN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIEKIN LOTZEN DEN ARAUZKO ESPARRUA AZTERTZEA Iraupena: 6 ordu

IE1: Energia berriztagarriko instalazioetako aurrezpen energetikoa eta gasen emisioa kalkulatu du, eta instalazio konbentzionalenekin alderatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Energia konbentzionaleko instalazioen eta energia berriztagarriko instalazioen errendimendu energetikoak alderatzea.
2. Instalazio berean energia konbentzionalarekin eta energia berriztagarriekin aurreikus daitezkeen kontsumoak kontabilizatzeko.

EDUKIAK					Multzoak			
					1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia-iturriak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> - Eguzki-energia termikoaren ahalmena ebaluatzea. - Energia geotermikoaren ahalmena ebaluatzea. - Biomasiatik eratorritako energiaren ahalmena ebaluatzea. Instalazioen erregulazioak eta kontrolak egitea, eraginkortasun energetikoa hobetzeko ahaleginean laguntzeko. Aurrezpen energetikoa kuantifikatzea. 				X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia konbentzionalen ingurumen-inpaktua. Instalazio termikoen errendimendu energetikoa. Beroa eta hotza sortzeko ekipamenduak. Prestazioak. 				X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa bilatzean, jarrera ordenatua, metodikoa eta parte-hartzailea izatea. Lan-taldean elkarlanean eta integratuta jardutea. Txukuntasuna eta garbitasuna zaintzea egindako lanetan eta jardueretan. Ingurumen-sentsibilizazioa izatea. 				X			
JARDUERA			METODOLOGIA			BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J0 UDaren aurkezpena.	1-2	1 h	X	X	Irakasleak 2. unitate didaktikorako sarrera egingo du. Ikaskuntzaren	Ingurumen-arazoak eta gure planetako baliabide energetikoak ustiatzeko beste	<ul style="list-style-type: none"> • Moduluen programazioa. • Ordenagailua. 	



					<p>helburuak, edukiak eta jarduerak aurkeztuko ditu, eta unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, gainerako unitate didaktikoekin lotuz. Aldi berean, eraginkortasun energetikoarekin eta energia berriztagarriekin lotzen diren galderak egingo ditu, baita beste galdera orokorrago batzuk ere. Galdera horien bitartez, hainbat alderdirekin lotzen diren arazoei buruzko jakintza-maila ezagutu nahi da: ikasleek fosil-jatorria duten erregaien kontsumoarekin, egungo garapen energetikoko ereduak sortutako ingurumen-arazoekin, herrialde bakoitzaren araudira eramaten diren arte legeek jarraitzen duten bideekin, eta abar. Lortzen diren erantzunekin emango zaio hasiera J1 jarduerari.</p>	<p>eredu baten beharra gaurkotasun handiko gaiak dira, ikasle gehienek ondo ezagutzen dituztenak. Interes orokorreko gai horiek baliatuko ditugu ikasleen aurretiazko ezagutzak azalertzeko eta ezagutza horien eta garatu beharreko edukien arteko loturak ezartzeko.</p>	<p>Proiektorea. Microsoft Office paketea. Power Point-eko aurkezpena. Ikasleei emandako apunteak.</p>
J1-E1 <i>Egia deserosoa</i> bideoa ikustea eta eztabaidatzea.	1-2	2,5 h	X	X	<p><i>Egia deserosoa</i> bideoa proiektatuko da, 1 h eta 32 min-ko iraupena du. Gero, ikasleen eta irakaslearen artean gai hauen inguruko solasaldia piztuko da: garapen iraunkorra, poluzioa, ingurumen-problematika (ozono-geruza zulatzea, negutegi-efektua, hondakinen kudeaketa,...), klima-aldaketa, eta abar.</p>	<p>Ikasleek gure planetak dituen ingurumen-arazoen gainean eta baliabide energetikoen ustiapenaren gainean duten ezagutza-maila areagotzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arazo horien larritasunaz jabetzeko. • Ikasleek gaurkotasuneko gaietan parte har dezaten sustatzeko, eta haien ikuspegia eman dezaten errazteko. • Ebaluazio-jarduera izango da; izatez, jarduera honi esker, irakasleek ikasleen parte-hartzearekin eta integrazioarekin lotzen diren jarrerazko 	<p>DVDak edo bide digitaleko artxiboak proiektatzeko ikus-entzunezko sistema izango duen ordenagailua. Proiektorea. Bide-artxiboa <i>Egia deserosoa</i> (iraupena: 1h:32min).</p>



						edukiak baloratu ahal izateko informazio lagungarria atera ahal izango da.	
J2 Eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarriei buruz indarrean dagoen araudiaren inguruko azalpena.	1-2	1,5 h	X		J0 eta J1 jardueretan lortutako erantzunak abiapuntu izanik, irakasleak eraginkortasun energetikoarekin eta energia berriztagarriekin lotzen den eta indarrean dagoen araudiari buruzko eta horren aurrekariari buruzko azalpen teorikoa emango du. Hasteko, Europako Erkidegoaren esparruan sortzen denetik herrialde bakoitzeko araudira eramaten den arteko prozesua argituko du. Eraikuntzako Kode Teknikoak eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduak jarraitutako prozesuan eta araudi hauek eragiten dituzten aurrekarietan oinarrituko da azalpena: 2002/91/EE ARTEZTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzkoa, Eraikuntzaren Lege Organikoa, Kyotoko protokoloa, (Copenhagen?) eta abar. Indarrean dagoen araudiaren aurrekariak azaldu ostean, Eraikuntzako Kode Teknikoaren eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren egituraren azterketan oinarrituko da azalpena, eta moduluan garatuko diren edukietan eragina izango duten alderdirik	Eraginkortasun energetikoa zein energia berriztagarriak eta horien aplikazio-esparruak erregulatzen dituzten araudiak behar bezala ezagutzeko –gaur egungo araudi-esparru korapilatsua baita–.	Interneterako konexioa duten ordenagailuak. Proiektorea. Microsoft Office paketea. Araudiari eta aurrekariari buruzko Power Point-eko aurkezpena. Ikasleei emandako apunteak. Arauk, euskarri digitalean.



					adierazgarrienak nabarmenduko dira: ur bero sanitarioko gutxieneko eguzki-ekarpina (H.H.4), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren gida eta dokumentu onartuak, eta abar. Azkenik, honako Arteztarau honen aipamena egin beharko da: 2009/28/EE ARTEZTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2009ko apirilaren 23koa, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera sustatzeari buruzkoa.		
J3-E2 Eraikuntzako Kode Teknikoaren eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren egitura islatuko duen laburpena egitea eta terminoen glosariorako definizioak lantzea.	1-2	1 h	X	X	Eraikuntzako Kode Teknikoaren zein Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren egitura laburbilduko duten bi eskema egin dezaten eskatuko die irakasleak ikasleei. J2 jardueran eskatutakoaren araberrako alderdirik adierazgarrienak nabarmenduko dituzte. Ondoren, eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarriei buruzko araudiarekin lotzen diren kontzeptuak planteatuko zaizkie eta definitu egin beharko dituzte. Kontzeptu horiek jarduera honetan eta beste batzuetan jada aipatutako terminoen glosarioan txertatu beharko dira. Irakasleak bi lan horiek J3 jarduera amaitutakoan bilduko ditu, eta 2. unitate didaktikoa ebaluatzeko izango dira baliagarriak.	Erregelamentazioaren azterketa oso zeregin neketsua bada ere, eta ezagutzak legeria horren kontsultaren eta aplikazioaren ondoriozkoa izan behar duen arren, komeni da ikasleek argi izatea behar dutena non bilatu behar duten, eta, horrela, araudia aplikatzeko eta betetzeko prozesua arintzea.	Internerako konexioa duten ordenagailuak. Proposatutako ariketen enuntziatua: terminoen glosarioan definitu beharreko kontzeptuak eta eskemak. Araudi digitalizatua: Eraikuntzako Kode Teknika eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua. Web-orri interesgarriak: - www.codigotecnico.org . - www.idae.es - www.mityc.es - www.mviv.es - eta abar.



OHARRAK

- Kontuan izan behar da ikasleek zehaztapen tekniko eta araudi garrantzitsuenak ezagutzeko alderdirik adierazgarrienak aztertzen direla unitate didaktiko honetan.
- Terminoen glosarioa ikasleek moduluan aurrera egin ahala osatu beharko duten dokumentu bat da. Definitzea edo azaltzea garrantzitsuztat jotzen diren kontzeptu guztiak sartu beharko dira glosarioan.
- J3-E2 jardueran biltzen diren lanak banan-banan egingo dira eta baloratu ostean, ikasleei itzuliko zaizkie.



3. unitate didaktikoa: ENERGIA SORTZEKO SISTEMAK AZTERTZEA							Iraupena: 15 ordu			
<p><i>IE1: Energia berriztagarriko instalazioetako aurrezpen energetikoa eta gasen emisioa kalkulatu du, eta instalazio konbentzionalenekin alderatzen ditu.</i></p> <p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Energia konbentzionalen instalazioen eta energia berriztagarriko instalazioen errendimendu energetikoa alderatzea. 2. Instalazio berean energia konbentzionalarekin eta energia berriztagarriekin aurreikus daitezkeen kontsumoak kontabilizatzeko. 										
EDUKIAK							Multzoak			
							1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia-iturriak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> - Eguzki-energia termikoaren ahalmena ebaluatzea. - Energia geotermikoaren ahalmena ebaluatzea. - Biomasetatik eratorritako energiaren ahalmena ebaluatzea. Aurrezpen energetikoa kuantifikatzea. 					X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Energia konbentzionalen ingurumen-inpaktua. Instalazio termikoen errendimendu energetikoa. Beroa eta hotza sortzeko ekipamenduak. Prestazioak. 					X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa bilatzean, jarrera ordenatua, metodikoa eta parte-hartzailea izatea. Lan-taldean elkarlanean eta integratuta jardutea. Txukuntasuna eta garbitasuna zaintzea egindako lanetan eta jardueretan. Ingurumen-sentsibilizazioa izatea. 					X				
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
J0 UDaren aurkezpena.		1 h	Ir.	Ik.	Irakasleak 3. unitate didaktikorako sarrera egingo du. Ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta jarduerak	Ikasleek garatu beharreko edukien arteko loturak ezartzeko, eta horien ikaskuntzaren inguruko interesa pizteko.	Ikasleei emandako apunteak. Ordenagailua. Proiektorea.			



					aurkeztuko ditu, eta unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, gainerako unitate didaktikoekin lotuz. Era berean, energia sortzeko moduei buruzko eta kasuak kasu erabiltzen diren erregai motei buruzko galderak egingo ditu.		Microsoft Office paketea. Power Point-eko aurkezpena, energia sortzeko sistemak azalduko dituena.
J1-E1 Erregai fosilei eta erregai horien erreserben iraupen-aurreikuspenei buruzko testua irakurtzea eta horren inguruan eztabaidatzea.	1-2	1,5 h	X	X	Irakasleak guztion artean irakurri beharreko garapen iraunkorari buruzko testu bat proposatuko du. Testu horretan orain arte energia sortzeko erabili izan diren erregaiei buruz eta erregai horien erreserben gaineko aurreikuspenei buruz mintzatuko da. Testua irakurtzen amaitzean, irakurgaiari jorrotutako gaii buruzko eztabaida proposatuko da. Ikasle guztiek hartu beharko dute parte.	Fosil-jatorria duten baliabideak agortzearekin lotzen diren arazoei eta energia sortzeko beste sistema batzuk sortzeko beharri buruzko ezagutzak zabaltzeko. Garapen iraunkoraren behararekin kontzientziatzeko. Ikasleek gaurkotatutako gaietan parte har dezaten sustatzeko, eta haien ikuspegia eman dezaten errazteko. Ebaluazio-jarduera izango da; izatez, jarduera honi esker, irakasleak ikasleen parte-hartzearekin eta integrazioarekin lotzen diren jarrerazko edukiak baloratu ahal izateko informazio lagungarria atera ahal izango da.	Garapen iraunkorari eta fosil-jatorriko baliabideak agortzeari buruzko testua. Mota horretako testuak oso ugariak dira gai hori jorrotzen duten askotariko liburu eta web-orrietan. Adibide gisa honakoa aipatzen da: "Un cuento de terrorismo energético" Pedro.A. Prietorena, Interneteko helbide honetatik jaitzia: - www.crisisenergetica.org
J2 Energia sortzeko sistemari buruzko azalpena.	1-2	2 h	X		Irakasleak, aurkezpen informatiko batean oinarrituta, eraikinen esparruan energia sortzeko hainbat modu azalduko ditu. Hasteko, fosil-jatorriko erregaiak erabiltzen dituzten energia sortzeko ohiko sistemak azalduko ditu (elektrizitatea, gasolioa, gas naturala, etab.), eta amaitzeko sistema horiekiko alternatibak adieraziko ditu, hau da, jatorri berriztagarria duten energiak	Energia sortzeko sistema tradizionalak, hots, erregai fosiletan oinarritzen direnak, eta energia berriztagarrietan oinarritzen direnak bereizteko.	



					kontsumitzen dituzten sistemak (eguzki-energia termikoa, bero-ponpa geotermikoak, biomasa, eta abar).		
J3-E2 Energia sortzeko sistema bat osatzen duten multzo nagusia identifikatzeko eta deskribatzeko praktika autonomoa.	1-2	2 h	X	X	<p>Irakasleak energia sortzeko lau edo bost sistema azaltzen dituen (argazki bidez edo eskema bidez) fitxa bat emango die ikasleei, eta ikasleek honako atalak identifikatu eta definitu beharko dituzte taldeka:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sorgailu mota. - Erregai mota. Energia primarioa edo sekundarioa. - Sistemaren funtzionamenduaren eta energia sortzeko moduaren deskribapen laburra. - Banatzeko eta biltegitatzeko sistema, halakorik badu. - Erregaiaz gain, sisteman erabiltzen diren fluidoak. <p>Multzoak identifikatu eta deskribatu ostean, aurkeztutako sistemak berriztagarrien eta berriztaezinen artean bereizi beharko dira.</p>	<p>Energia sortzeko sistema baten zatiak identifikatzeko, eta oinarrizko funtzionamendua ezagutzeko, kontsumitzen den erregaia kontuan izanik.</p> <p>Energia sortzeko sistemak ingurumen-arazoekin eta fosil-jatorriko baliabide energetikoen urritasunaren ondoriozko arazoekin lotzeko.</p> <p>Ebaluazio-jarduera bat izango da; izatez baliagarria izango zaigu kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak baloratzeko informazio lagungarria lortzeko.</p>	<p>Energia sortzeko hainbat modu eta identifikatu eta deskribatu beharreko multzoak aurkeztuko dizkiguten argazkiak edo eskemak.</p> <p>Microsoft Office paketea.</p> <p>Power Point-a, planteatutako sistematarako irtenbideekin.</p> <p>Ikasleei emandako apunteak.</p> <p>Ordenagailua.</p> <p>Proiektorea.</p>
J4-E3 Jatorri berriztagarria duen energia sortzeko sistemei buruzko praktika gidatua.	1-2	6 h	X	X	<p>Irakasleak instalazio termikoetako lantegira bisitaldi gidatua antolatuko du. Beheraxeago adierazten diren instalazioak abian jarri eta aztertzen diren lantegia izango da. Bisitaldian ikasleek ondoren egin beharko duten lanari buruzko informazioa bilduko dute (apunteak hartu, irakasleari galderak egin, argazkiak egin, eta abar). Bisitaldia amaitutakoan irakasleak egin</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen heziketan autonomia eta nork bere buru aski izatea sustatzeko. • Ikasleek jatorri berriztagarria duen energia sortzeko sistemei buruzko ezagutza sakonagoa izateko. • Ebaluazio-jarduera bat izango da; izatez, baliagarria izango zaigu jarrerazko eta prozedurazko edukiak baloratzeko informazio lagungarria lortzeko. 	<p>Ekipamendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bero-ponpa geotermikoa, ur bero sanitarioa sortzeko, berokuntzarako eta girotze-sistemarako. - Bero-ponpa aerotermikoa, ur bero sanitarioa sortzeko, berokuntzarako eta girotze-sistemarako. - Eguzki-energia termikoa atzitzeko



				<p>beharreko praktikaren gidoia aurkeztuko die. Bertan zehaztuko da zein den bilatu beharreko informazioa. Klasea bi laguneko taldeetan banatuko da, eta talde bakoitzari lantegian ikusi eta ondoren aurkeztuko den jatorri berriztagarria duen energia sortzeko sistemetako baten inguruko edukiak dituen fitxa bat emango zaio. Ikasleek sistema horien inguruko informazioa bilatu beharko dute, eta horien funtzionamendua eta ezaugarriak garrantzitsuenak azaldu beharko dituzte. Hauek dira aztergai izango dituzten sistemak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bero-ponpa geotermikoak, ur bero sanitarioa sortzeko, berokuntzarako eta girotze-sistamarako. - Bero-ponpa aerotermikoak, ur bero sanitarioa sortzeko, berokuntzarako eta girotze-sistamarako. - Eguzki-energia termikoa atzitzeko sistemak, ur bero sanitarioa sortzeko eta berokuntza-sistamarako. - Eguzki-energia termikoa ur hotza sortzeko (eguzki-hotza) baliatzen duten xurgatze-makinak. - Biomasa-galdarak, ur bero sanitarioa sortzeko eta berokuntza-sistamarako. <p>Lortzen den informazioarekin txosten/memoria bat egingo dute, eta, praktika amaitzean, horren kopia bat emango diote irakasleari.</p>		<p>sistemak, ur bero sanitarioa sortzeko eta berokuntza-sistamarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eguzki-energia termikoa ur hotza sortzeko (eguzki-hotza) baliatzen duen xurgatze-makina. - Biomasa-galdara, ur bero sanitarioa sortzeko eta berokuntza-sistamarako. <p>Interneterako konexioa duten ordenagailuak.</p> <p>Proposatutako ariketen enuntziatua.</p> <p>Azaldutako eskemei buruzko formatu digitaleko informazioa: fabrikatzaileen katalogoak, proiektuak, artikulatu teknikoak, eta abar.</p> <p>Aldizkari eta liburu teknikoak.</p> <p>Ekipamendu horien fabrikatzaileen web-orriak.</p>
--	--	--	--	---	--	---



<p>J5-E4 Aurreko J4 jardueran lortutako informazioa azaltzea</p>	<p>1-2</p>	<p>2,5 h</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Ikasleak, binaka jarrita, J4 jardueran lortutako informazioa eta egindako lana aurkeztuko diete ikaskideei. Irakasleak, beharrezkoa bada, osatu egingo du azalpenean gaineratzen den informazioa.</p>	<p>Ikasteko prozesua aztertzeko eta, hala badagokio, zuzentzeko. Ikasleen heziketan autonomia eta nork bere buru aski izatea sustatzeko. Gainerako ikaskideei beste sistemen funtzionamenduaren berri emateko. Ebaluazio-jarduera bat izango da; izatez, baliagarria izango zaigu jarrerazko eta prozedurazko edukiak baloratzeko informazio lagungarria lortzeko.</p>	<p>Ikus-entzunezko sistema izango duen ordenagailua, beharrezkoa bada azalpena osatzeko erabili ahal izango dena. Proiektorea.</p>
<p>OHARRAK</p>							
<ul style="list-style-type: none"> J3 jardueran jatorri berriztagarria duten energia sortzeko bost sistema planteatuko dira, bi ikasleek osatutako taldeetan sistema horien inguruan lan egiteko. Ikasle kopuruaren arabera talde bakoitzak landu beharreko sistemak errepikatu ahal izango dira. Gogorarazi behar da jarduera honetan ikasleek terminoen glosarioa osatzen jarraitu beharko dutela; izatez, moduluak aurrera egin ahala, osatu egin beharko da dokumentu hori. Definitzea edo azaltzea garrantzitsutzat jotzen diren kontzeptu guztiak sartu beharko dira glosarioan. 							



4. unitate didaktikoa: ENERGIA SORTZEKO SISTEMEN ARTEKO ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN KALKULU KONPARATZAILEAK EGITEA Iraupena: 15 ordu

IE1: Energia berriztagarriko instalazioetako aurrezpen energetikoa eta gasen emisioa kalkulatzen du, eta instalazio konbentzionalenekin alderatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Instalazio berean energia konbentzionalarekin eta energia berriztagarriekin aurreikus daitezkeen kontsumoak kontabilizatzea.
2. Energia berreskuratzeko sistemak erabiltzearen ondoriozko aurrezpen energetikoa kuantifikatzea.
3. Energia konbentzionalako instalazioen eta energia berriztagarriko instalazioen errendimendu energetikoak alderatzea.
4. Instalazio baten kontrol-parametroak aldatzearen ondoriozko aurrezpen energetikoa kuantifikatzea.
5. Eraikin baten eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa kalkulatzea.
6. Berariazko programa informatikoak erabili ditu.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Instalazioen erregulazioak eta kontrolak egitea, eraginkortasun energetikoa hobetzeko ahaleaginean laguntzeko. • Instalazio termikoetako kontsumoak kontabilizatzea. • Instalazio termikoetan energia berreskuratzea. • Aurrezpen energetikoa baloratzea. • Energia konbentzionalako instalazioen eta energia berriztagarriko instalazioen errendimendu energetikoak kuantifikatzea. • CO2ko emisioen produkzio baliokidea kalkulatzea. 	X X X X X X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Instalazio termikoen errendimendu energetikoa. • Beroa eta hotza sortzeko ekipamenduak. Prestazioak. • Instalazio termikoetan hondar-energia baliatzea. 	X X X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa bilatzean, jarrera ordenatua, metodikoa eta parte-hartzailea izatea. • Txukuntasuna eta garbitasuna zaintzea egindako lanetan eta jardueretan. 	X X			



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 UDaren aurkezpena.		1 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak, edukiak eta aurrera eramango diren jarduerak aurkeztuko ditu, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko du, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko du.	Ikasleak alde zuzeneko jarrera egokia har dezaten garatu beharrekotan lan motarekiko.	Moduluaren programazioa. Unitate didaktikoaren edukiak. Ordenagailua eta proiektorea.
J1 Unitatean erabiliko diren programa informatikoei buruzko azalpena.	1-2-3-6	1 h	X		Irakasleak ikaskuntzaren helburuak erdiesteko erabiliko diren programa informatikoa aurkeztuko ditu. <ul style="list-style-type: none"> • RETScreen programa informatikoa. Energia garbiko proiektuak aztertzeko softwarea da, kalitate handiko eta kostu txikiko aurretiazko egingarritasun-azterlanak egiteko asko erabiltzen dena. • CALENER programa informatikoa. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak, IDAren bidez, eta Etxebizitza Ministerioak sustatutako tresna bat da. Programa informatiko horren bidez, eraikin baten eraginkortasun energetikoko maila zehaztu ahal izango da. Programak bi tresna informatiko erabilgarriak errazago erabili ahal izan dezaten: CALENER GT eta CALENER VYP. 	Erabiliko diren programak ezagutzeko eta programa horien bidez zer lortu nahi den jakiteko.	



					Irakasleak CAENER programaren garrantzia nabarmenduko du, Industria Ministerioak onartutakoa baita.		
J2 Energia garbiko proiektuak programa informatiko baten bidez aztertzeo praktika gidatua.	1-2-3-6	3 h	X	X	<p>Irakasleak RETScreen programaren funtzionamendua azalduko du. Horretarako, hainbat energia primariotako zenbait proiektuetako adibideak emango ditu, eta urratsez urrats aztertuko ditu, ikasleak prozesua jarraitu ahal izan dezan. Prozesu horretan, irakasleak kontzeptu berriak definitzeko beharrezko azalpenak emango ditu, esate baterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Berokuntza-sistema batean: <ul style="list-style-type: none"> -Urtaroko eraginkortasuna • Hozteko sistema batean: <ul style="list-style-type: none"> - Errendimendua/urtaroko koefizientea • Hondar-beroa duen energia sistema batean: <ul style="list-style-type: none"> - Bero-transferentziako tasa. - Beroa berreskuratzeo eraginkortasuna. <p>Ikasleak terminoen glosarioan jaso beharko ditu praktikan zehar agertuko diren kontzeptu berri horiek.</p> <p>Azkenik, irakasleak proiektu horiek energia primarioko iturriekin alderatuko ditu, eta arlo hauetako ondorioak nabarmenduko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Instalazio termikoetako 	Programa informatikoaren funtzionamendua ezagutzeko. Alderaturako eta aztertutako emaitzen irakurketa eraginkorrerako parametro guztiak ezagutzeko.	Ikasle bakoitzarentzat Internetarako sarbidea duen ordenagailu bat. RETScreen softwarea. RETScreen energia garbiko proiektuak aztertzeo ikastaroa jasoko duen "pdf" formatuko dokumentua. Terminoen glosarioa. Proiektorea eta Internetarako sarbidea duen ordenagailua.

					<p>kontsumoak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eraginkortasun energetikoa. • Aurrezpen energetikoaren balorazioa. • CO₂-ko emisioak. 		
J3-E1 Energia garbiko proiektu bat programa informatiko baten bidez aztertzeko praktika autonomoa.	1-2-3-6	3 h		X	<p>Irakasleak aurreko praktikan landutakoaren antzeko proiektu bat emango die ikasleei. RETScreen programarekin, eta prozedura berari jarraituz, arlo hauetako ondorioak atera, aztertu eta alderatu beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Instalazio termikoetako kontsumoak. • Eraginkortasun energetikoa. • Aurrezpen energetikoaren balorazioa. • CO₂-ko emisioak. <p>Ikasleak egindako praktikaren laburpen-memoria eman beharko dio irakasleari.</p>	<p>Energia garbiak dituzten proiektuetatik ondorioak ateratzeko, aztertzeko eta alderatzeko.</p> <p>Ikaskuntza-prozesuan eskuratutako ezagutzak sendotzeko.</p>	
J4 Eraikinetako eraginkortasun energetikoko ziurtagiriaren azalpena.	5	1 h		X	<p>Irakasleak azalduko du eraikin baten eraginkortasun energetikoko ziurtagiria urtarrilaren 19ko 47/2007 Errege Dekretuaren I. eranskinean jasotzen den kalkulu-metodologiaren arabera zehaztuko dela.</p> <p>I. eranskin horri jarraituz, eta aukera orokorra kontuan izanik, CALENER erreferentziatzeko programa informatikoa erabiltzearen alde egin daiteke, edo programa alternatibo bat erabil daiteke.</p>	<p>Errege Dekretu horretara nola sartu jakiteko eta kalkuluaren metodologia ulertzeko.</p>	<p>47/2007 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa.</p> <p>Proiektorea eta Internetarako sarbidea duen ordenagailua.</p> <p>Industria Ministerioaren web-orria.</p>



